

**Gipuzkoako  
Aldizkari  
Ofiziala**



**Boletín  
Oficial de  
Gipuzkoa**

**44**

2022ko martxoaren 7a, astelehena

**1**

## **GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK**

### **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

#### **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*122/2022 Foru Agindua, martxoaren 2koa, honako hau zuzentzekoa: 98/2022 Foru Agindua, otsailaren 17koa, zeinaren bidez onesten baitira ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.*

Otsailaren 17ko 98/2022 Foru Aginduaren bidez onetsi egin da zeintzuk izango diren ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.

Haren edukian urtarrilaren 30eko 35/2020 Foru Agindua aipatu da, ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onesten dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko, eta, berez, urtarrilaren 13ko 12/2021 Foru Agindua aipatu behar zen, ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onesten dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.

Hortaz, egindako akatsa zuzendu behar dago.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Aldatzea otsailaren 17ko 98/2022 Foru Agindua, zeinaren bidez ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onesten baitira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta*

*dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.*

Otsailaren 17ko 98/2022 Foru Agindua, zeinaren bidez ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onesten batira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko, honela aldatzen da.

*Bat.* Hitzaurrean:

— *Hau esaten duen tokian:*

«Aipatutako ibilgailuen azken eguneratzea urtarrilaren 30eko 35/2020 Foru Aginduaren bidez egin zen. Agindu horrek ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen ditu, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.»

— *Hau esan behar du:*

«Aipatutako ibilgailuen azken eguneratzea urtarrilaren 13ko 12/2021 Foru Aginduaren bidez egin zen. Agindu horrek ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen ditu, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.»

*Bi.* Xedapen indargabetzailean:

— *Hau esaten duen tokian:*

«Indarrik gabe geratzen da urtarrilaren 30eko 35/2020 Foru Agindua, ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.»

— *Hau esan behar du:*

«Indarrik gabe geratzen da urtarrilaren 13ko 12/2021 Foru Agindua, ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.»

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 2022ko martxoaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2022ko martxoaren 2a.—Jokin Perona Lerchundi, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(1292)